

SOLDATAK, PENTSIOAK, LANGABEZIA PRESTAZIOAK ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERRESKATEAK SEXUAREN ARABERA GIPUZKOAN- 2016

(Departamentuko web orrian, “Departamentuko beste argitalpen batzuk” atalean aurkitu daitekeen txosten osoaren laburpen bat da)


1. SOLDATAK

1.1 Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2016. urteko 310.811 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 9.704ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,1eko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,4 emakumezkoak dira, eta beste %53,6 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,3 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,7.

Grafikoa 1 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2016



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 21.019 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 28.194 eurokoa.

Grafikoa 2 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2016



Azkeneko hamabi urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2005ean 120.314 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2016an kopuru hori 139.823ra igo da, hau da, %16,2 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 166.324tik 161.284ra pasa dira (-%3,0). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2009an eta 2013an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte (2016an %2,8 igo da).

Taula 1. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	120.314		166.324	
2006	124.732	3,7	168.394	1,2
2007	129.586	3,9	171.048	1,6
2008	131.331	1,3	169.995	-0,6
2009	129.562	-1,3	163.333	-3,9
2010	129.579	0,0	159.900	-2,1
2011	129.939	0,3	157.491	-1,5
2012	130.619	0,5	157.298	-0,1
2013	128.699	-1,5	152.262	-3,2
2014	131.354	2,1	153.948	1,1
2015	135.184	2,9	156.927	1,9
2016	139.823	3,4	161.284	2,8
2005/2016		16,2		-3,0

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 4,5 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2005ean soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %42,0 zen emakumezkoa, eta



2016an, lehen aipatutako %46,4ra iritsi dira. Ondorioz, gizonetzkoak alderantzizko bide egin dute: %58,0 izatetik %53,6 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2005ean emakumezkoek jasotako soldatak 2.029 milioi euro izan ziren bitartean, 2016an 2.939 milioi euro izan dira; hau da, %44,9 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012 eta 2013 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

Taula 2. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonetzkoak	Bar. %
2005	2.029		4.051	
2006	2.200	8,5	4.265	5,3
2007	2.421	10,0	4.529	6,2
2008	2.617	8,1	4.716	4,1
2009	2.672	2,1	4.478	-5,0
2010	2.699	1,0	4.402	-1,7
2011	2.731	1,2	4.431	0,7
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2005/2016		44,9		12,2

Gizonetzkoak jasotako soldatak %12,2 igo dira hamabi urte hauetan: 4.051 milioi eurotik 4.547 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 5,9 puntu igo da hamabi urte hauetan: 2005eko 33,4tik lehen aipatutako %39,3ra. Eta gizonetzkoena %66,6tik %60,7ra pasa da.

Taula 3. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)


	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonetzkoak	Bar. %
2005	16.862		24.357	
2006	17.641	4,6	25.328	4,0
2007	18.685	5,9	26.481	4,6
2008	19.927	6,6	27.740	4,8
2009	20.624	3,5	27.419	-1,2
2010	20.829	1,0	27.527	0,4
2011	21.014	0,9	28.138	2,2
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2005/2016		24,7		15,8

2005etik 2016ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %24,7 igo da: 16.862 eurotik 21.019 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %15,8 igo da: 24.357 eurotik 28.194 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamabi urte hauetan:

- 2005. urtean 7.495 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %30,8 txikiagoa zela.
- 2006–2008 epealdian arraila urtero handitu zen; zenbatekoetan alderik handiena azken urte horretan izan zuen: 7.812 euro.
- Hortik aurrera, eta 2011., 2014., 2015. eta 2016. urteak izan ezik, arraila gutxitu egin zen. Azken urte honetan 7.175 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handirik ez egon 2005eko zenbatekoarekin (7.495 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 5,4 puntu jaitsi da: 2005eko %30,8tik 2016ko %25,4ra.

Grafikoa 3– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)




2 PENTSIOAK

2.1. Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2016. urteko 177.019 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 6.813ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,8ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,0 emakumezkoa da, eta beste %51,0 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %39,2 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,8.

Grafikoa 4 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2016



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 14.001 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 20.861 eurokoa.

Grafikoa 5 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2016



Azken hamabi urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 68.668tik 83.429ra pasa dira (+%21,5), eta gizonezkoak 72.050etik 86.777ra (+%20,4).

Taula 4. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	68.668		72.050	
2006	69.546	1,3	72.803	1,0
2007	70.561	1,5	73.790	1,4
2008	72.255	2,4	75.289	2,0
2009	73.495	1,7	76.150	1,1
2010	74.474	1,3	77.080	1,2
2011	75.836	1,8	78.545	1,9
2012	77.509	2,2	80.365	2,3
2013	78.570	1,4	81.665	1,6
2014	79.557	1,3	83.023	1,7
2015	82.269	3,4	85.490	3,0
2016	83.429	1,4	86.777	1,5
2005/2016		21,5		20,4

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamabi urteetan: +%91,0 (612 milioi eurotik 1.168 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.042 milioi eurotik 1.810 milioi eurora pasa dira (+%73,8). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 2,2 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2005eko %37,0tik lehen aipatutako %39,2ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %63,0tik %60,8ra.



Taula 5. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	611.677.608		1.041.540.553	
2006	666.848.021	9,0	1.116.405.747	7,2
2007	704.989.053	5,7	1.172.381.791	5,0
2008	777.362.820	10,3	1.293.248.990	10,3
2009	813.869.304	4,7	1.338.851.475	3,5
2010	853.735.358	4,9	1.393.467.600	4,1
2011	908.519.425	6,4	1.474.680.151	5,8
2012	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
2013	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
2014	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
2015	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
2016	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
2005/2016		91,0		73,8

2005etik 2016ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %57,2 igo da: 8.908 eurotik 14.001 eurora. Gizonezkoena, berriz, %44,3 igo da: 14.456 eurotik 20.861 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %25,9 igo da.


Taula 6. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	8.908		14.456	
2006	9.589	7,6	15.335	6,1
2007	9.991	4,2	15.888	3,6
2008	10.759	7,7	17.177	8,1
2009	11.074	2,9	17.582	2,4
2010	11.464	3,5	18.078	2,8
2011	11.980	4,5	18.775	3,9
2012	12.279	2,5	19.026	1,3
2013	12.726	3,6	19.553	2,8
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2015	13.574	1,2	20.515	0,8
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2005/2016		57,2		44,3

Azken hamabi urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2005. urtean %38,4koa zen eta 2016an %32,9koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %32,9 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan, berriz, handitu egin da: 2005ean 5.548 euroko aldea zegoen, eta 2016an 6.860 eurokoa da.

Grafikoa 6 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera




3. LANGABEZIA PRESTAZIOAK

3.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2016. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 47.665 pertsonatik ez dugu ezagutzen 1.799ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %51,9 emakumezkoa da, eta beste %48,1 gizonezkoa. Zenbatekoari begirazten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %49,1 jasotzen dute, eta gizonezkoek %50,9.

Grafikoa 7 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2016



Azken hamabi urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 15.123tik 23.818ra igo da (+%57,5).
- Gizonezkoen kopurua 15.015etik 22.048ra igo da (+%46,8)

Taula 7. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	15.123		15.015	
2006	15.975	5,6	15.801	5,2
2007	20.475	28,2	17.656	11,7
2008	22.077	7,8	20.719	17,3
2009	28.487	29,0	39.797	92,1
2010	29.608	3,9	38.923	-2,2
2011	29.877	0,9	34.814	-10,6
2012	31.416	5,2	36.736	5,5
2013	30.715	-2,2	35.304	-3,9
2014	28.340	-7,7	29.986	-15,1
2015	25.491	-10,1	24.576	-18,0
2016	23.818	-6,6	22.048	-10,3
2005/2016		57,5		46,8

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %63,7 handitu da (45 milioi eurotik 74 milioi eurora), eta gizonezkoena %42,7 igo da (54 milioi eurotik 77 milioi eurora).

Taula 8. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	45.386.805		53.962.114	
2006	51.028.505	12,4	60.279.730	11,7
2007	67.049.120	31,4	66.728.197	10,7
2008	74.396.505	11,0	78.336.172	17,4
2009	105.920.643	42,4	171.846.876	119,4
2010	112.741.802	6,4	171.768.314	0,0
2011	110.552.896	-1,9	147.975.071	-13,9
2012	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
2013	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
2014	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
2015	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
2016	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
2005/2016		63,7		42,7

4. GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK


4.1. Errenta moduan egindako erreskateak

4.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitopenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2016. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 15.875 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 444ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %43,5 emakumezkoak dira, eta beste %56,5 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %33,6 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %66,4.

Grafikoa 8 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2016



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2016. urtean 5.091 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 7.744 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamabi urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 6.590tik 6.706ra (+%1,8) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 11.990tik 8.725era pasa dira (-%27,2). Bi kasuetan urtero eman dira igoerak, etekin gabe, 2014an, 2015ean eta 2016an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 erduan).

Taula 9. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	6.590		11.990	
2006	6.829	3,6	12.490	4,2
2007	7.149	4,7	12.562	0,6
2008	8.061	12,8	13.608	8,3
2009	8.944	11,0	13.832	1,6
2010	9.376	4,8	14.440	4,4
2011	9.562	2,0	14.480	0,3
2012	10.113	5,8	14.941	3,2
2013	10.648	5,3	15.463	3,5
2014	9.244	-13,2	12.019	-22,3
2015	6.954	-24,8	8.997	-25,1
2016	6.706	-3,6	8.725	-3,0
2005/2016		1,8		-27,2

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2005ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 29 milioi euro izan ziren bitartean, 2016an 34 milioi euro izan dira; hau da, %17,2 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean eta 2016an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 erduan).

Taula 10. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	29.127.113		80.227.420	
2006	31.584.949	8,4	86.760.870	8,1
2007	33.389.767	5,7	86.921.447	0,2
2008	39.053.609	17,0	94.693.137	8,9
2009	42.720.587	9,4	98.725.921	4,3
2010	45.701.618	7,0	105.567.094	6,9
2011	48.801.743	6,8	111.372.260	5,5
2012	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
2013	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
2014	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
2015	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
2016	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
2005/2016		17,2		-15,8

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %15,8 jaitsi dira hamabi urte hauetan: 80 milioi eurotik 68 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean eta 2016an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 erduan).


4.2. Kapital moduan egindako erreskateak

4.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2016. urteko 12.431 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 187ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,4 emakumezkoak dira, eta beste %57,6 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begirazten badiogu, emakumezkoek guztiaren %34,7 erreskatatzen dute (73 milioi euro), eta gizonezkoek %65,3 (138 milioi euro).

Grafikoa 9 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2016



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2016. urtean 14.127 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 19.519 eurokoa.

Azken hamabi urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua ia-ia 3 bider handitu da: 1.786tik 5.186ra (+%190,4). Gizonezkoak, berriz, 4.657tik 7.058ra pasa dira (+%190,4). 2012., 2013. eta 2016. urteak kenduta, beste guztietan urtero eman dira igoerak, emakumeen kasuan.



Taula 11. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	1.786		4.657	
2006	2.266	26,9	5.370	15,3
2007	2.853	25,9	5.972	11,2
2008	4.387	53,8	8.569	43,5
2009	4.779	8,9	9.382	9,5
2010	4.873	2,0	9.541	1,7
2011	5.856	20,2	10.079	5,6
2012	5.533	-5,5	9.040	-10,3
2013	5.197	-6,1	8.526	-5,7
2014	5.427	4,4	8.003	-6,1
2015	6.334	16,7	8.408	5,1
2016	5.186	-18,1	7.058	-16,1
2005/2016		190,4		51,6

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2005ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 21 milioi euro izan ziren bitartean, 2016an 73 milioi euro izan dira; hau da, %248,1 gehiago. Eta hori, 2011rekin alderatuta jaitsi egin dela; izan ere, urte horretan emakumezkoak kapital moduan erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi eurotara iritsi zen.

Taula 12. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2005	21.048.907		53.600.713	
2006	28.542.382	35,6	78.153.354	45,8
2007	39.305.912	37,7	93.704.750	19,9
2008	59.631.290	51,7	157.736.632	68,3
2009	68.624.348	15,1	162.269.923	2,9
2010	76.459.403	11,4	185.100.687	14,1
2011	113.650.983	48,6	243.672.147	31,6
2012	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
2013	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
2014	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
2015	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
2016	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
2005/2016		248,1		157,0

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %157,0 igo dira hamabi urte hauetan: 54 milioi eurotik 138 milioi eurora. Hauek ere 2011n lortu zuten zenbatekorik altuena: 244 milioi euro.